



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

ALDUNDIAK “ABUZTUAN” BUKATUKO DITU ARTAZAKO OBRAK, ETA “2023AN” HASI AHAL IZANGO DA LA AVANZADA “ESTALTZEN”

- **“Estaltzeko” eraikuntza proiektua “urrian” esleituko da.**
- **Imanol Pradales Azpiegitura eta Lurraldearen Garapenerako foru diputatua Bizkaiko Batzar Nagusien aurrera etorri da, oposizinoak eskatuta, Bizkaiko errepide sarean edegi diran “laneko tarteen” nondik norakoaren barri emoteko.**
- **Interbiakerek 3,36 milioi euro erreklamauko deutzaz Verter Recycling enpreseari, Zaldibarko hondakindegia erorketak errepidean eragindako kalteak dirala eta.**
- **Aldundiak garagarrilaren 7an zabalduko ditu barriro AP-8ko erreiak, 15 egun beharko daben lehengoratzeko beharren ostean.**

(Bilbon, 2020ko bagilaren 22an). Imanol Pradales Azpiegitura eta Lurraldearen Garapenerako foru diputatua Bizkaiko Batzar Nagusietako batzordera etorri da, oposizinoak eskatuta, bere saila Bizkaiko errepideen sarean egiten ari dan hainbat jarduketaren barri emoteko. Talde Bereziak (PP) Artazako eta La Avanzadako beharren, Kukularrako lotunearen eta Zaldibarko hondakindegia jaustek kaltetutako AP-8 eta N-634 errepideetako tartetan egindako jarduketan ganean galdetu deutso. Elkarrekin Bizkaia taldeak, bere aldetik, Armintza eta Bakio lotzen dituan BI-3152 errepidean Aldundia egiten ari dan beste jarduketa batzuen barri jaso gura izan dau.

Aldundia La Avanzadan, Artazako biribilgunearen ondoan, “errepideko segurtasuna hobetzeko eta trafikoa arintzeko” egiten ari dan beharrei jagokenez, Pradalesek adierazo dauenez, behar horreek “abuztuan” bukatuko dira, covid-19ak eragindako jardurearen eteteak behar horreetan eragina izan dauelako. “1.126.368 euroko” kostu osoa daukien obren lehenengo fasea joan dan martiaren 27an bukatu zan, trafikoa Getxoko noranzkoan antolatzeko. Une honetan egiten ari diranen helburua, Artazako biribilgunetik gertu dagon errepideko zatiaren “ahalmena, segurtasuna eta ikusgaitasuna” hobetzea da.

Diputatuak adierazo dauenez, obra horreek ez dabe “zarata eraginaren ganeko azterlanik” behar. Halanda be, Aldundiak bere azterlanak egin ditu, eta azterlan horreetan ikusten danez, jarduketaren ostean inguruko zarata mailak “behera egin dau”. PP taldeko Eduardo Andradek esan dauenez, Leioan Martxan plataforma ez dago horregaz oso ados. Pradalesek azaldu dauenez, Leioako Udala zarataren kontrako pantailak “handitzeko” aukerea ari da aztertzen, behar hori egitea ez jagokolako foru erakundeari.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Bilbo Metropolitarrako sareko puntu garrantzitsu hori hobetzeko helburuagaz, arduradunak gogoratuazo dauenez, une honetan, Aldundia La Avanzadako “80 metro lineal estaltzeko” eraikuntza proiektua lizitzeko prozesua ari da egiten, “1.998.960 euroren” truke. Errepideko enbor horretatik egunero igaroten diran “130.000 ibilgailuen” zarataren eragina murriztuko dauen “lehentasunezko” jarduketea da. Proiekturako “24 hilebeteko” gauzatze epea aurreikusten da, eta “urrian” esleituko da. Aurreikusitako egutegia beteten bada, obrak “2023an hasi daitezke, faseka”, esan dau.

Oposizinoak adierazo dauenez, sailak prestau dauen “estalketa” horrek Leioako beste puntu batzuetara eroango dau zaratea, eta “partxe parzial” bat baino ez da izango. “Herritarrek egin daben moduan”, Leioako udalerritik igarotean errepide “oso” lur azpian sartzea ekarriko dauen soluzino “integralaren” alde agertu dira. “Teknikariei behar egiten itzi behar deutsegu, oraindino definidu barik dagon ekimen bat hiltzen ari garalako”, esan dau Pradalesek, amaitzeko.

Bizkaiko errepide sareko laneko beste tarte garrantzitsuetako bat, La Avanzada Arrontegiko zubiagaz eta Txorierriko igarobideagaz lotzen dauen Kukularrako lotunean dago. Trafiko asko jasaten dauen puntua da. Pradalesek gogoratuazo dauenez, bere Sailak “2,7 milioi euro” inbertiduko ditu errepidearen ahalmena handitzeko, Arrontegiko zubiaren noranzkoan, eskumaldetik. Obrak egiteko hamar hilebeteko epea aurreikusten da, “datorren udagoienez” hasiko diran beharrak gauzatzeko.

ZALDIBARKO HONDAKINDEGIA JAUSTEAK ERAGIN DITUAN GASTUEN ERREKLAMAZINOIA

Horrez gain, Zaldibarko hondakindegia jausi zantetik AP-8 eta N-634 errepideetan gauzatu diran neurrien eta jarduketan ganeko azalpenak emon ditu. Zezeilaren 28an egin eban azkenengo agerraldiaren ostean egon diran barrikuntzen artean, Aldundiko arduradunak iragarri dau Interbiak “3.359.525 euro” erreklamauko deusazala Verter Recycling enpresari Durangoko epaitegian, erorketa horrek “gaur arte” sortu dituan gastuak dirala eta.

Holan, Eusko Jaurlaritzak, “modu subsidiarioan” eregiten ari dan 25 metroko altuerako euspeneko hormaren obrak aurreratuta dagozanez, datorren garagarrilaren 7an AP-8ko lau erreiak “segurtasuneko berme guztiakaz” zabaldu ahal izango dira, lehengoratzeko behar batzuk egin ostean. Bagilaren 30eko goizaldean altxauko da bypass-a Donostiarako noranzkoan, kutxetak, farolak eta metalezko hesiak lehengoratzeko eta galtzadako zoladurea aldatzeko jarduketan ostean. Egun horretatik aurrera gauean beharrak egingo dira beste noranzkoan, San Fermin egunean galtzada Bilboko noranzkoan libre



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

izteko. Azkenengo ikutu horreek irauten daben bitartean, gaez, trafikoa Ermuko Saihesbidetik desbideratuko da.

“LEGEZ KANPOKO LASTERKETAK” ARMINTZA ETA BAKIO ARTEAN

Bukatzeko, Elkarrekin Bizkaia taldeak BI-3152 (Armintza-Bakio) errepideko asfaltoan egin diran konponketen ganean galdetu deutso diputatuari, asfaltoa “arriskutsuagoa” dalako, errepideak “laban gehiago egiten dauelako”. Pradalesek esan dauenez, bigarrenez zigilau da 41980 kilometro puntuan dagon arrakalea, EBk homologautako produktu bat erabilita. Berbaldia baliauta, “benetan arriskutsua dana”, abiaduraren muga orduko 50 kilometrotan daukan eta kurbaz beteta dagon errepidean hauteman diran “legez kanpoko lasterketak” dirala esan dau Foru diputatuak.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA DIPUTACIÓN TERMINARÁ LAS OBRAS EN ARTAZA “EN AGOSTO” Y PODRÍA COMENZAR LA “CUBRICIÓN” DE LA AVANZADA “EN 2023”

- **El proyecto constructivo de cubierta del vial que parte Leioa será adjudicado “en octubre”, según el diputado foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, Imanol Pradales, que ha comparecido en las Juntas Generales de Bizkaia para informar, a petición de la oposición, de la evolución de distintos “tajos” abiertos en la red viaria de Bizkaia.**
- **Interbiak reclamará 3,36 millones de euros a Verter Recycling por los daños viales ocasionados por el derrumbe del vertedero de Zaldibar.**
- **La Diputación reabrirá el 7 de julio los carriles de la AP-8 tras unas obras de reposición que durarán 15 días.**

(Bilbao, a 22 de junio de 2020). El diputado foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, Imanol Pradales, ha acudido a la comisión correspondiente de las Juntas Generales de Bizkaia a informar, a petición de la oposición, de varias actuaciones que su departamento está llevando a cabo en la red de carreteras de Bizkaia. El grupo Mixto (PP) le preguntaba por las obras en Artaza y la Avanzada, el enlace de Kukularra y las actuaciones en los tramos de la AP-8 y la N-634 afectados por el derrumbe del vertedero de Zaldibar, mientras que Elkarrekin Bizkaia estaba interesado en conocer otras actuaciones de la Diputación en la carretera BI-3152 que une las localidades de Armintza y Bakio.

Respecto a las obras que la Diputación está llevando a cabo en la Avanzada junto a la rotonda de Artaza, encaminadas a “mejorar la seguridad vial y la fluidez del tráfico”, Pradales ha informado de que las mismas terminarán “en agosto”, con retraso tras afectarles el parón de actividad debido al covid-19. Una primera fase de las obras cuyo coste total es de “1.126.368 euros”, finalizaron el 27 de marzo con la intención de reordenar el tráfico en sentido Getxo. Y las que están en ejecución actualmente tienen como fin mejorar la “capacidad, seguridad y visibilidad” del tramo viario cercano a la rotonda de Artaza.

El diputado ha explicado que estas obras no requieren de “estudio de impacto acústico”, pese a lo cual la Diputación ha hecho análisis propios que concluyen



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

que los niveles de ruido “han bajado” en la zona tras la actuación, algo en lo que no está muy de acuerdo la plataforma Leioan Martxan, según ha sostenido el representante del PP Eduardo Andrade. Pradales ha explicado que el Ayuntamiento de Leioa está estudiando “ampliar” las pantallas “antiruido”, debido a que esta actuación no corresponde ejecutarla a la institución foral.

De cara a mejorar este punto importante del mallado del Bilbao Metropolitano, el responsable foral ha recordado que, en estos momentos, se encuentra en licitación por “1.998.960 euros” el proyecto constructivo de “cubrición de 80 metros lineales” de La Avanzada, una actuación “prioritaria” que reducirá el impacto acústico de los “130.000 vehículos” que atraviesan este eje viario todos los días. El proyecto contempla un plazo de ejecución de “24 meses” y será adjudicado “en octubre”. De mantenerse el calendario previsto, las obras podrían empezar “en el año 2023 de forma faseada”, ha dicho.

Según la oposición, la “tapada” que ha planificado el departamento provocará un traslado del impacto sonoro a otros puntos de Leioa y supone un “parche parcial” para eliminar las molestias. Se han decantado, “como los vecinos”, por una solución “integral” mediante un soterramiento “total” de la carretera a su paso por el municipio de Leioa. “Debemos dejar trabajar a los técnicos porque estamos matando una iniciativa cuando ni siquiera está definida”, ha zanjado Pradales.

Otro de los tajos importantes de la red viaria vizcaína se encuentra en el enlace de Kukularra, un cruce que conecta La Avanzada con el puente de Rontegi y el corredor del Txorierra y que soporta también una elevada intensidad de tráfico. Pradales ha recordado que su Departamento, dentro de las distintas fases que maneja, invertirá “2,7 millones de euros” en una actuación para ampliar la capacidad del vial en sentido al Puente de Rontegi, desde la margen derecha. La obra contempla un plazo de diez meses para la ejecución de los trabajos, que comenzarán el “próximo otoño”.

RECLAMACIÓN DE LOS GASTOS POR EL DERRUMBE DEL VERTEDERO DE ZALDIBAR

Asimismo, Pradales ha dado explicaciones sobre las medidas y actuaciones efectuadas en la AP-8 y N-634 desde que se derrumbó el vertedero de Zaldibar. Como novedad a la última comparecencia realizada por él mismo en la Comisión de Infraestructuras y Desarrollo Territorial del 28 de febrero, el responsable foral ha anunciado que Interbiak reclamará a Verter Recycling en el juzgado de Durango “3.359.525 euros” por los gastos generados “hasta hoy” por dicho derrumbe.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En este sentido, el avance de las obras del dique de contención de 25 metros de altura que el Gobierno vasco está construyendo “de manera subsidiaria”, permitirá abrir el 7 de julio los cuatro carriles de la AP-8 con “máximas garantías de seguridad”, tras abordar una serie de trabajos de reposición. La madrugada del 30 de junio se levantará el bypass sentido Donostia tras actuaciones para reponer arquetas, farolas y barreras metálicas, y sustituir el firme de la calzada. A partir de ese día, se realizarán trabajos nocturnos en el otro sentido para liberar el día de San Fermín la calzada en sentido Bilbao. Mientras duren estos últimos remates, el tráfico se desviará por la Variante de Ermua durante las noches.

“CARRERAS ILEGALES” ENTRE ARMINTZA Y BAKIO

Para terminar, Elkarrekin Bizkaia le ha preguntado al diputado por las reparaciones efectuadas en el asfalto de la carretera BI-3152 (Armintza- Bakio), dada la “peligrosidad” de las mismas “por un mayor deslizamiento” del vial. Pradales ha explicado que se ha vuelto a sellar por segunda vez una grieta en el punto kilométrico 41980 mediante un producto homologado por la UE. El diputado foral ha aprovechado su intervención para denunciar que lo “verdaderamente peligroso” de este vial son las “carreras ilegales” detectadas en una carretera sinuosa cuyo límite de velocidad se sitúa en los 50 kilómetros por hora.